

ERANDIO ELIZATEKO UDALA IRAGARKIA

Toki Jaurbidearen Oinarriak Arazten dituen apirilaren 2ko 7/85 Legeko 70.2 artikuluan xedatua betetzeko, ondoko agiri hau argitaratzen dugu:

KULTURA, KIROL ETA AISIALDIKO EGITASMOAK ETA JARDUERAK GARATZEKO ERANDIOKO UDALAK EMANGO DITUEN DIRULAGUNTZAK TRAMITATZEKO ETA ERABAKITZEKO UDAL ORDENANTZA ARAUTZAILEA

AURREKARIAK

Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, 4.1.a) artikuluan, araudiak egiteko ahalmena onartzen die udalei eta 25.2.m) artikuluan beste hau gaineratzen du: udalaren aginpideko eremuak direla "kultura- eta kirol-jarduerak eta kultur etxe eta kiroldegiak; astialdia betetzea ..."

Bestalde, sustatze ekimena deitzen dutena dago udalek bete beharreko egitekoen artean. Baina apirilaren 2ko 7/1985 Legea garatzen duten Ordenantzetan ez da garatzen, ordea, ekimen horiek nola gauzatu.

Horregatik, indarrean da, oraindik ere, Tokiko Korporazioen Zerbitzuei buruzko Ordenantza, 1955eko uztailaren 17ko Dekretu bidez onartutako Konstituzioaren aurreko testu arautzailea. Testu horrek 23.1 artikuluan ezartzen duenez, udalak badu ahalmenik bere aginpideak osatu edo ordezkatzeko dituzten entitate, erakunde eta norbanakoei dirulaguntzak emateko.

Erandioko Udalak aspalditik eman ohi dizkie dirulaguntzak herriko erakunde eta elkarteei, baina orain arte ez du araudi orokorrik onartu sustatze ekimen horren barne kokatutako udal jarduera antolatzeke.

Horregatik, goian aipatutako legezko xedapenak kontuan hartuta, Udalak honako Ordenantza hau onartu du eta apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 49. artikuluan agindutako izapideak bete beharko ditu.

I. kapitulua XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.- Xedea

Araudi honen helburua hau da: beren jardueraz udalaren aginpideak osatu edo ordezkatzeko dituzten entitate, erakunde, elkarte eta norbanakoei Erandioko Udalak dirulaguntzak emateko baldintzak arautzen dituzten oinarri orokorrak eta zehatzak ezartzea.

2. artikulua.- Aurrekontu izendapena.

1. Ordenantza honetan ezarritakoa betez deitutako urteroko egitarauak burutzeko Udalak emango dituen laguntzak, urtero Udaltzaren onetsi ohi duen Aurrekontuan horretarako jarritako diru kopuruarekin ordainduko dira, eta Aurrekontuan azaldutako zenbatekoa izango da muga.

2. Edonola ere, dirulaguntzak emango badira betebeharreko baldintza izango da Ordenantza honek barne hartzen dituen dirulaguntzak erabakitzean kreditu egoki eta nahikoak izatea.

3. artikulua.- Irizpide argigarriak

1. Dirulaguntzak borondatezkoak eta aldian aldikoak izango dira.

2. Lehendik emandako dirulaguntzek ez dute sortzen eskatzailearen aldeko inolako eskubiderik eta aurrekoa ez da kontuan hartuko berriz ematea erabakiko duen irizpidetzat.

3. Lortu asmo diren helburuen arabera emandako diru kopuruaren erabilera egokia egiaztatuko du Udalak, horretarako zuzen derizkion bidez baliatuz, gastua kontrolatuz eta, hala balegokio, erantzukizunak eskatuz eta udalak laguntza ematea gauzatu zuen helburuak bete ezik, dirua itzultzea ere bai.

4. Ezingo da eskatu emandako dirulaguntzen kopurua gehitzerik, Udalaren iritziz gehitzea eragin dezakeen egoera berezirik ez badago behintzat.

5. Diruz lagundutako jardueretan lortutako emaitzak balioetsiko ditu Udalak; beste dirulaguntza batzuk emateko edo ukatzeko irizpide argigarritzat hartu ahal izango da Udalaren baliospen hori.

II. kapitulua

UDALAREN AGINPIDEAK OSATU EDO ORDEZKATZEN DITUZTEN EGITARAU ETA JARDUERETARAKO DIRULAGUNTZAK

4. artikulua.- Dirulaguntza kontzeptuaren azalpena

Udalak urteroko bere aurrekontuaren posibilitateen arabera eta Ordenantza honetan berenberegiz aditzera emandako jardunbidea betez eman ohi dituen eta dirutan neurtu daitezkeen zuzeneko edo zeharkako laguntzak hartuko ditugu dirulaguntzat.

5. artikulua.- Dirulaguntzaren helburua

Irabazteko asmorik gabeko ekimen publiko edo pribatuei laguntza ematea da kapitulu honetan aipatutako dirulaguntzen helburua; ekimen horiek udalaren aginpideko jarduerak osatuz edo ordezkatzuz izan dezaketen eskuhartzeagatik emango dira, beti ere, diruz lagundutako jarduerak dirulaguntza ematen den urtealdian egiten badira.

6. artikulua.- Araubide juridikoa.

Dirulaguntzek borondatezko izaera izango dute, ez dute aurrera begirako inolako eskubiderik sortuko eta aurrekoa ez da berriz dirulaguntza ematea erabakiko duen irizpide izango.

Dirulaguntza emateak ez du, inolaz ere, erakunde onuradunarekiko inolako kontratu harremanik sortuko, ez eta erakunde horretan lan egiten duten pertsonetikiko ere.

7. artikulua.- Eskatzaileak.

1. Udalaren Kultura, Gazteria eta Kirol Arloetan aurreikusitako helburuak lortze aldera bideratutako jarduerak edo egitasmoak garatu nahi dituen eta irabazteko asmorik ez duen edozein pertsona fisiko, juridiko, publiko nahiz pribatuk eskatu ahal izango ditu Ordenantza honetan araututako dirulaguntzak.
2. Dirulaguntza eskatzen duena elkarte bada, ezinbesteko baldintza izango da Elkartearen Udal Erroldan inskribatua egotea. Horretarako, ondoko agiriak aurkeztu behar ditu:
 - a) Elkartearen estatutuak
 - b) Zuzendaritza Batzordearen osaketa (eguneratua), kide bakoitzak betezen duen kargua zehaztuta.
 - c) Udalarekiko harremanetarako izendatutako pertsonaren izena.
 - d) Eusko Jaurlaritzako Elkartearen Erregistroan inskribatzeko baimena ematen duen erabakiaren kopia.
 - e) Laguntzaileen zerrenda.
 - f) Helbide soziala, bankuko kontu zenbakia, emaila, fax zenbakia, telefono zenbakia eta antzekoak harremanak errazteko.
3. Ezingo dute izena eman ondoko elkarteek:
 - a) Merkataritza elkarteak
 - b) Helbide soziala Erandiotik kanpo dutenak, edo burutzen dituzten jarduerak udalerrian eraginik ez dutenak.
4. Erandio Elizateko udalerria izango da jarduerak edo egitasmoak gauzatzeko garapen-eremua edo, bestela, Erandioko Elizatean erroldatutako pertsonak izango dira eskabidearen oinarri diren jardueren onuradun.
5. Salbuespen gisa, Elkartearen Udal Erroldan inskribatuta ez dauden entitateei ere eman dakizkieke dirulaguntzak, Kultura, Gazteria eta Kirol Arloko zinegotzi delegatuak aldeko irizpena eman ondoren eta alkatearen dekretu bidez.
6. Dirulaguntza eskariari uko egiteko arrazoi nahikoa izango da lehenago Erandio Elizateko Udalak interesatuari emandako edozein dirulaguntzaren gaineko justifikagiriak ez aurkeztu izana.

8. artikulua.- Dirulaguntzak emateko balioespen irizpideak

Aurreko artikuluan aipatu diren agiriak egiaztatu ondoren, ondoko irizpideak hartuko dira kontuan aurkeztutako eskabideak balioesteko orduan:

- a) Udalak antolatzen dituen ekitaldietan eskainitako lankidetzak.
- b) Proiektuaren bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa.
- c) Antolatu nahi diren ekitaldien errentagarritasuna: gizarte eta kultura aldetik, hezkuntza, kirol, eta abar
- d) Garatu asmo diren ekitaldietan erakutsitako eskarmentua.
- e) Programatutako ekintzak zein neurritan datozen bat udalaren interes publikoarekin.
- f) Partehartzaileen edo onuraduen kopurua.
- g) Garatutako ekintzak gizartean duen eragina.
- h) Partehartzea sustatzea
- i) Euskararen erabilera sustatzea bazkideen artean eta jardueretan.
- j) Gure kulturaren garapenean duen eragina.
- k) Erandioko udalerrian kulturaren zein kirolaren sustapenari egiten dion ekarpena
- l) Behartsuenei zuzendua izatea
- m) Egitarauaren aniztasuna eta aberastasuna.
- n) Elkartek duen azpiegitura eta bere gizarte-helburuak betetzeko beharrezko dituen gastu iraunkorrak.
- o) Jardueraren aurrekontua eta finantzabideak; kontuan izango da, bereziki, jarduera garatzeko elkarteko kideek egiten duten ahalegina eta ekarpenak.

2.- Dirulaguntza puntualak onartzeko, eskabideak egiaztatzen duen aparteko gastuaren zenbatekoa eta gastua egiteko arrazoia hartuko dira kontuan.

9. artikulua.- Dirulaguntza-motak.

1.- Dirulaguntzak orokorrak edo aldian-aldikoak izan daitezke.

2.- Dirulaguntza eskatzen duen elkartearen urteko ohiko egitasmoa finantzatzen laguntzeko emandakoak dira dirulaguntza orokorrak.

Era berean, ohiko egitasmotzat jotzen dira, baita, jarraipen argia dutenak eta, denboraldi mugatuagoan burutu arren, duten izaera iraunkorragatik urteko jardueraregitegian koka daitezkeenak.

3.- Gertakari bereziak antolatzeak edo halakoetan parte hartzeak sortarazitako gastuei aurre egiteko aparteko izaeraz emandakoak dira aldian-aldiko dirulaguntzak.

Aldian-aldiko ekintzat edo gertakari berezitat jotzen dira urtean zehar garatzeko diren jardueren soka sartu barik, denbora epe labur jakin baten egiten direnak. Hauen artean sartuko dira urteko egitegian aurreikusi ez eta egoera berezi baten ondorioz sortarazten diren ekitaldi osagarriak.

10. artikulua.- Eskakerak aurkeztea eta gauzatzea.

1.- Udaletxeko Erregistro Nagusian aurkeztuko dira dirulaguntza eskaerak, horretarako eskuratutako orrietan. Bestela, Administrazio Prozeduraren Legeak ezarritako bideak ere erabil daitezke eskaerak aurkezteko. Deialdi ofizialez kanpo ez da eskabiderik onartuko. Normalizatutako eskaera-orriak udalaren arlo horietako ataletan ere eskuratu ahal izango dira.

Kultura Batzordeak finkatuko du dirulaguntza orokorrak eskatzeko urteroko epea. Holakorik ezean, urtarrilaren 31ra arteko epea izango da urte horretako dirulaguntza eskabidea egiteko. Elkarteen Udal Erregistroan izena emanda egonik, deitutako dirulaguntzak eskuratzeko aukera duten elkarte guztiei jakinaraziko zaie eskaerak egiteko epea zein izango den.

Dirulaguntza orokorra eskuratzeko eskabidearekin batera proiektuak aurkeztu beharko dituzte, edo dirulaguntza eskaria zuritzeko agiriak eta bidezko diren agiriz osatutako proiektua. Proiektuak honako hauek azaldu behar ditu:

- a) Egingo diren jarduerak zeintzuk diren
- b) Noiz eta non egingo diren
- c) Udalak zer jarri beharko duen
- d) Aurreikusitako helburuak eta zein biztanle-talderi zuzenduta dagoen
- e) Talde arduraduna
- f) Urteko diru aurrekontua eta finantzatzeko modua

3.- Ez da epe jakinik aldian-aldiko dirulaguntzak eskatzeko, baina orokorrean, ondoko jarraibide hauek ezartzen dira:

- ▶ Jarduera egiten hasi baino hilabete lehenago aurkeztu behar da eskabidea.
- ▶ Jarduera prestatzeko lanen berri zehatza eman Kultura Sailari

Dirulaguntza orokorretarako eskatutako dokumentazio bera erantsi behar zaio eskabide orriari, baina egingo den jarduerari mugatuta

- Jarduera amaitu ondoren, elkarte onuradunak 45 eguneko epea izango du dirulaguntza zuritze aldera Ordenantza honetako 12. artikuluan eskatzen diren agiriak aurkezteko.

4.- Dirulaguntza orokorrak zein aldian-aldiko dirulaguntzak eskatuz aurkeztutako eskabideak Udaleko Kultura Zerbitzuan aztertuko dituzte eta, bidezkoa izanez gero, akatsak zuzentzeko edo dokumentazio osagarria aurkezteko eskatuko dute.

5.- Dirulaguntza eskaera egin eta hiruhilabetera erantzunik ez bada jaso, eskabidea ezetsizat emango da.

11. artikulua.- Eskabideen gaineko erabakia.

A) Dirulaguntza Orokorrak

1. Kultura arlo arduradunak gaiari buruzko irizpena eman ondoren, Erandio Elizateko alkate-udalburuak dekretua egingo du eskatutako dirulaguntza onartzeko ala ezezteko. Dirulaguntza ematea erabakiz gero, Dekretuan zehaztuko da dirulaguntzaren zenbatekoa, Ordenantzan ezarritako irizpideei jarraituz. Dirulaguntza ez da diruz lagundutako jardueraren edo egitarauaren kostuaren %50etik gorakoa izango, Ordenantzaren 11. artikuluan adierazitako salbuespenetan izan ezik. Hori horrela bada ere, kostuaren %75eko dirulaguntza jaso dezakete ondoko jarduerak edo programek:

- a) Herrian sustraitutako ekimen soziokulturalen aukera berritzen edo zabaltzen duten proiektu eta jarduera berritzaileak.
- b) Beren jarduera Erandion, Eskuinaldean edo Bilbo Handiko eskualdean garatzen duten talde, elkarte edo erakundeek elkarlanean sustatu, koordinatu eta burututako proiektuak zein jarduerak, beti ere Erandioko talderen bat tarteko dela.
- c) Asoziazionismoa eta boluntariotza sustatzen dituzten egitarauak eta jarduerak, bai eta udalerrian euskararen erabilera sustatzea helburu dutenak ere.

2.- Jarduerak egin aurretik ordainduko dira aurreko puntuan adierazitako portzentajeak aplikatuz egoki diren zenbatekoak.

B) Aldian-aldiko dirulaguntzak

Kultura arlo arduradunak gaiari buruzko irizpena eman ondoren, Erandio Elizateko alkate-udalburuak dekretua egingo du eskatutako dirulaguntza onartzeko ala ezezteko. Dirulaguntza ematea erabakiz gero, Dekretuan zehaztuko da dirulaguntzaren zenbatekoa eta ondoren azaldutakoaren arabera egingo da ordainketa:

- Jarduera egin aurretik dirulaguntzaren %75a ordainduko da.
- Jarduera burutu ondoren, gainontzeko %25a ordainduko da Ordenantzako 12. artikulua ezartzen duenari jarraituz eta Udalak diruz lagundutako zenbateko osoa justifikatzeko agiriak aurkeztu ondoren

Salbuespen gisa, jarduera egin aurretik ordain daiteke dirulaguntzaren %100 beti ere, Kultura, Gazteria eta Kirol arloko zinegotzi-delegatuak emandako ebazpen arrazoituari jarraituz eta alkatearen ebazpen bidez. Jarduera burutu ostean justifikatuko dira dirulaguntzak, bestetan bidezko den legez.

Salbuespen gisa, Elkarteen Udal Erroldan inskribatuta ez dauden elkarrekin ere jaso dezakete dirulaguntza, Kultura, Gazteria eta Kirol Arloko zinegotzi delegatuak aldeko irizpena eman ondoren eta alkate-udalburuaren dekretu bidez.

12. artikulua.- Jasotako dirulaguntzaren erabilera justifikatzeko agiriak.

1. Dirulaguntza orokorra jasotzen duen pertsona zein entitate orok derrigortasuna du Erandio Elizateko Udalaren aurrean gastuak justifikatzeko, dirulaguntza jasotzen duen urtean bertan; hurrengo urteko urtarrilaren 31ra arte luzatu ahal izango da epea, gastuak justifikatzeko zailtasun bereziren bat izanez gero.

2. Aldian-aldiko dirulaguntzen kasuan, diruz lagundutako ekintza egin eta 45 egunera arteko epea izango da gastuak justifikatzeko.

Gastuak justifikatzeko, ondorengo agiriak aurkeztu behar dira:

- a) Eskatera-orria, behar bezala beteta eta Kultura, Gazteria eta Kirol Arloko zinegotzi delegatuari zuzenduta. Ordenantza honetan agindutakoa betetzeko, eskatutako agiriak aurkezten direla adieraziko da eskaera orrian, eta agiri horiek datuen egiazkotasuna erakutsiko dute.
- b) Diruz lagundutako egitarau edo jarduerak sortarazitako gastuen jatorrizko justifikagiriak edo horien fotokopia konpultsatuak, dirulaguntzaren zenbatekoa %100ean osatu arte.

Justifikagiriak eta aurretiaz egindako eskabideak azaldutakoaren arabera diruz lagundutako helburuak eta jarduerak gauzatzean sortutako gastuek bat etorri behar dute derrigorrez; bestelako helburuak betetzeko egindako gasturik ez da justifikaziotzat onartuko.

Dirulaguntza justifikatzeko aurkeztutako agiriak aztertuko ditu Udalak eta jarduera garatzeko eskuratutako dirulaguntza baino gastu txikiagoak izan badira, aurkeztutako gastuen justifikagirik justifikatzen ez duten zenbatekoa udal-kutxara itzultzeko eskatuko zaio elkarte onuradunari.

- c) Elkartearen jardunak sortzen dituen sarreraren eta gastuen balantze orokorra. Sarreratzat agertuko dira bestelako erakunde publikoekin zein pribatuekin adostutako laguntza-hitzarmenak, dena delakoak izanda ere.
- d) Egindako jardueren azalpen-txostena. Egindako jardueren azalpena eta ebaluazio txostena aurkeztuko da, lortu asmo ziren helburuak zein neurritan bete diren azaltzeko: hartzaileak, partaidetza, jardueren egokitasuna, ... Memoriarekin batera aurkeztuko dira jarduerari buruz egindako kartelak, esku-programak, agiri grafikoak zein idatzizkoak eta abar.

2.- Diruz lagundutako ekitaldiaren gastuak ez badira justifikatzen, Udalak ez ditu ordaintzeke dauden kopuruak ordainduko eta onuradunek itzuli egin beharko dute Udalak aurreratutako dirua. Dirusarrerak eta gastuak egiaztatzeke jatorrizko agiriak eskatu ahal izango ditu Udalak, bidezkotzat jotzen duenean.

3.- Indarrean dauden udal araudiak betetzeko konpromisoa hartzen dute elkarte onuradunek. Hori ez badute betetzen eta arauak ez betetze hori larria bada edo behin eta berriro errepikatzen bada, hurrengo ekitaldian laguntzarik edo dirurik ez ematea erabaki dezake eskumena duen organoak.

4.- Dirulaguntzaren zenbatekoa ez da, inolaz ere, elkarte onuradunak egindako jardueren kostuaren zenbatekoa baino handiagoa izango. Horretarako kontuan izango dira bestelako administrazioen eta erakunde publikoen zein pribatuen aldetik jasotako era guztietako laguntzak edo dirusarrerak. Izandako sarrera eta gastuen justifikagiriak aztertu eta gastu baino sarrera gehiago izan dela ikusiz gero, Erandioko Udalaren dirulaguntza murriztu egingo da, gehiegizko sarreren neurri berean.

13. artikulua.- Onuradunen bestelako betebeharrak

Pertsona eta entitate onuradunek ondoko konpromisoak hartzen dituzte dirulaguntza ematea erabakitzen den unean:

- a) Arauak betetzea, bai Ordenantza honetan jasotakoak eta baita dirulaguntza emateko erabakian ezartzen diren bestelakoak ere.
- b) Jarduerak, egitarauak eta horien ondoriozko jarduketek sortarazten dituzten erantzukizunak bere gain hartzea, horretarako beharrezko baimen eta lizentziak eskatuz. Era berean, erantzukizun zibileko aseguruia eta istripu aseguruia hitzartu beharko dituzte.
- c) Eskatzen zaien informazio osagarri eta frogak agiri guztiak aurkeztea. Udal administrazioak eskatutako informazioari edo laguntzari uko egiteak egindako eskakizuna artxibatzea edo, bestela, emandako laguntzaren iraungipena ekar dezake.
- d) Proiektuan adierazitako jarduerak edo egitarauak gauzatzera bideratu behar da jasotako dirulaguntza, eta ez beste ezertara. Dena dela ere, egitasmoan aurreikusitako ekitaldiren bat aldatzekotan, ekitaldia burutu aurretik eman behar zaio Udalari horren berri, Udalak aldaketak egiteari baimena eman edo baimenari uko egin diezaion.

14. artikulua.- Ez betetzeak

1. Dirulaguntzaren onuradunak ez baditu Ordenantza honetan ezarritako baldintza guztiak, aplikagarri diren arau orokorrak eta dirulaguntza emateko ebazpenean ezarritako baldintza partikularrak betetzen, emandako laguntzarako eskubidea galdu izana adieraz dezake aginpidedun organoak, arrazoitutako ebazpen bidez eta interesatuari gehienez 15 laneguneko entzunaldia eskaini ondoren. Era berean, jasotako kopurua Udalari itzuli beharra ere ezar dezake eta, hori guztia, bidezkoak diren bestelako ekinbideak bideratzearen kaltetan joan gabe.

2. Aipatutako zenbatekoak sarrera publikotzat joko dira, ondorio guztietarako, eta itzultzeko epea, borondatezko aldian, hilabetekoa izango da. Ez-betetzea eta bidezkoak diren kopuruak itzuli beharra adierazten duen jakinarazpenaren datatik hasiko da epea kontatzen.

3. Bidezko diren kopuruen itzulketa egiteko honako hauek aplikatuko dira: Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea eta ogasunari nahiz dirubiltzailetzari dagokionez indarrean den Foru Araudia.

4. Artikulu honetako 1 puntuan aipatutako prozedurari hasiera emanez gero, etenda geratuko dira oraindik egiteke dauden ordainketak.

15. artikulua.- Udal laguntzaren berri zabaltzea

Dirulaguntza jaso duen elkarteak dena delako ekintza hori iragartzeko esku-orriak, kartelak edo bestelako edozein publizitate modu erabiltzen badu, publizitate horrek argi eta garbi adierazi behar du Udalak lagundu duela. Horretarako, honako hau agertu behar du: "Laguntzailea: Kultura, Gazteria eta Kirol Arloa / Erandio Elizateko Udala" eta Erandio Elizateko Udalaren armarrria.

16. artikulua.- Udal lokalen erabilera lagatzea

1.- Ordenantza honetan araututakoaz gain, kultura, kirol, eta aisialdiko elkarteei udal lokalak dohain lagatzeko erabakiak ere har ditzake Udalak, kasuan kasuko denboraldirako eta ezarritko baldintzak zein ordutegia betebeharra izanik. Beti ere, ondoko baldintzak bete beharko dituzte:

- a) Elkarteen Udal Erroldan izena emanak behar dute izan.
- b) Kultura, kirol edo aisialdiko jardueraren bat burutu behar dute.

2.- Utzitako lokalak jaso dituzten egoera higieniko-sanitario berean iraunarazteko konpromisoa hartzen dute lagapenaren onuradun diren entitateek. Bestalde, sortarazten dituzten kalteen erantzule ere izango dira.

3.- Dena dela, lagapenak unean uneko erabilgarritasunaren arabera egingo dira eta lagapena justifikatuko duten faktore guztiak hartuko dira aintzat, hala nola zenbat erabiliko den, lagundu ohi duten pertsonen kopurua, erabiltzaileak eta abar.

4.- Era berean, elkarteen egoitzatzat erabiltzeko lokalak laga ditzake Udalak, erabilera konpartitua izanik eta, horrela, lokalen erabilera eskasa ekidin eta erabilera arrazionalagoa ziurtatuz.

17. artikulua.- Beste laguntza batzuk

Jarduerak garatzeko lagungarri diren bestelako baliabideak, zerbitzuak eta materialak ere jarriko ditu Udalak elkarte antolatzaileen eskura, udalak berak dituen neurrian.

Horretarako, ekintza jakinak bideratzeko beharrezko diren materialez hornitzen joango da Udala.

Bestalde, eurek sortarazitako kalteen erantzule izango dira material lagapenaren onuradun diren entitateak.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

- 1.- Ordenantza honek arautzen dituen dirulaguntzak emateak ez dakar inolako harreman zibil, laboral, administratibo ez beste inolakorik Erandio Elizateko Udalaren eta dirulaguntza jasotzen duen pertsona edo entitate onuradunaren artean.
- 2.- Ordenantza honetatik kanpo geratzen dira Erandio Elizateko Udalak ematen dituen dirulaguntzak baldin eta dirulaguntza horiek udal administrazioak beste administrazio publikoekin eta era guztietako erakundeekin adostutako hitzarmenetan edo erabaki jakinetan oinarrituta ematen badira.
- 3.- Ordenantza hau betetzeko koordinazio arazorik sortuz gero, alkatetzak bideratuko ditu arazo horiek eta alkatetzak izango diu ordenantzaren aplikazioan sortzen diren zalantzak eta hutsuneak argitzeko eskumena.
- 4.- Honako Ordenantza hau 2004ko urtarrilaren lehenean jarriko da indarrean, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 49 eta 70.2 artikuluetan ezarritakoaren arabera onartu eta gero.

ALDI BATERAKO XEDAPENA

Ordenantza honetan arautu gabeko gaiei dagokienez, ondorengo lege arauetan xedatua aplikatuko da: Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legea, 1985eko uztailaren 17ko Dekretuz onartutako Tokiko Korporazioen Zerbitzuei buruzko Ordenantza, uztailaren 11ko 1372/1986 Errege Dekretuaren bidez onartutako Tokiko Entitateen Ondasunei buruzko Ordenantza eta gaiarekin bat datozen bestelako udal erabakiak.

Argitaratu eta hamabost egunera jarriko da indarrean aipatutako ordenantza, 7/85 Legeko 65.2 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Erandioko Elizatean, 2004ko martxoaren 1ean.

ALKATE-UDALBURUA
Mikel Arieta-araunabeña Bustinza